

**Arartekoaren 2021R-2368-19 Ebazpena, 2021eko irailaren 2koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berrikeria dezala langile autonomo baten diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokion prestazioa eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eteteko ebazpen bat, langile horri bere jardueraren fikziozko errendimendua egotzi baitzaio, krisi-egoeran dela egiaztatu arren, berrikeria horrek ekar litezkeen ondore ekonomikoekin.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek erakunde honetan aurkeztutako kexa-idazki bat izapidetzeko onartu zen; kexa-idazki horretan Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokion prestazioa eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eten zituelako (interesduna bi prestazio horien titularra zen).

Interesdunak adierazi zuen saltzaile ibiltaria zela 2017ko apiriletik, eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (lanaren modalitate osagarriaren arabera) eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria jasotzen zituela aldi berean.

Eskubide horien titular izateko baldintzak eta beharkizunak betetzen direla berrikeriako prozedura batean, eta langile autonomo gisa duen jardueraren errendimendua zehazte aldera, 2019ko apirilaren 8an Lanbidek entzunaldi-izapide bat jakinarazi zion, azken 3 hilabeteetako diru-sarreraren aitortpena aurkezteko eskatuz.

Norberaren konturako jardueraren ondoriozko errendimendua oso txikia zenez, eta, horrenbestez, PFEZaren urteko aitortpena aurkezteko betebeharrak formalik ez zenez, interesdunak azken 3 hilabeteetako diru-sarreraren zinteko aitortpena aurkeztu zuen Lanbideari, eta, bertan, bere jardueraren errendimendua hilean 70 eurokoa zela adierazi zuen.

Lanbideko zuzendari nagusiaren 2019ko maiatzaren 24ko ebazpenaren bidez, erakunde honek prestazioak etetea erabaki zuen, honako honetan oinarrituta: bere konturako jardura hasi eta hemezortzigarren hilabetetik aurrera, eta alde zuzeneko zerga-aitortpenik ezean, bere jardueraren gutxieneko errendimendua egozgarria, diru-sarrerak bermatzeko errentaren araudiaren arabera, Lanbideari Gutxieneko Soldataren (LGS) % 150 izango litzateke.

Bi prestaziook eteteko ebazpenaren aurka, interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri zuen 2019ko uztailaren 3an; errekurtso hori ebazteke zegoen kexa formalizatzeko unean.

2. Kexa jaso bezain laster, Arartekoak informazio-eskaera bat bidali zion Lanbideari. Eskaera horretan, arestion aipatu diren egitatei buruzko informazioa eskatu zitzaion, eta erakunde horri gogorarazi zitzaion, Administrazio Prozedura

Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APEL) 124. artikulua araberako aukerako berraztertze-errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa dela.

Eskaera horri erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak txosten bat bidali zuen, non adierazten baitzuen 2019ko azaroaren 28an ebatzi zela jarritako errekurtsoa. Txosten horretan ebazpenaren testua erantsita zegoen.

Ebazpen honen zuzenbideko HIRUGARREN oinarrian, interesdunari dagokionez, Lanbidek honako hau erasotzen du:

*"(...) no presenta declaración de Renta y que sus ingresos medios netos entre los meses de mayo de 2018 y marzo de 2019 han sido de 70 € mensuales (Declaración Jurada de 2 de mayo de 2019-Registro número 135686)".*

Zuzenbideko LAUGARREN oinarrian, Lanbidek honako hau argudiatzen jarraitzen du:

*"El artículo 16 del Decreto 147/2010 regula la determinación de los rendimientos de trabajo por cuenta propia estableciendo en su apartado 3 que "en el caso de no disponerse de declaración fiscal previa, se realizará una declaración jurada de ingresos mensuales medios netos a lo largo de los tres últimos meses".*

Ondoren, honako hau gehitzen du: *"en el caso de declaración jurada de ingresos mensuales medios netos inferiores al 150% del salario mínimo interprofesional, así como en el de ingresos nulos o negativos, la declaración se aceptará en su integridad:*

- a) *Quando se hubiese iniciado la actividad por cuenta propia en los seis meses inmediatamente anteriores a la solicitud.*
- b) *Quando se hubiese observado una situación de crisis en la actividad en los seis meses inmediatamente anteriores a la solicitud".*

Eta amaitzeko, adierazten du ezen gainerakoetan *"se presumirá una cuantía mínima de ingresos mensuales que corresponderá al 75% del salario mínimo interprofesional, cuando las circunstancias a) y b) reflejadas se hubieran producido con seis a dieciocho meses de antelación, y al 150% del salario mínimo interprofesional, cuando se hubieran producido con más de dieciocho meses de antelación".*

Aurreko oinarrien ondorioz, Lanbidek honako hau ondorioztatu du errekurtsoaren ebazpenaren zuzenbideko BOSGARREN oinarrian:

*"En el presente caso, habida cuenta que, tanto desde el inicio de la actividad desarrollada por (...), como desde el inicio de la situación de crisis, se ha*

superado el plazo de 18 meses, se presume que los ingresos mensuales del recurrente son iguales al 150% del salario mínimo interprofesional.

*Estos ingresos o rendimientos superan la cuantía mensual de la Renta de Garantía de Ingresos que corresponde al titular de la prestación en función del número de personas miembros de la unidad de convivencia y del tipo de unidad de convivencia, lo que supone el incumplimiento del requisito establecido en el artículo 9.3.a del decreto 147/2010 y, en consecuencia, resulta ajustado a Derecho suspender temporalmente el derecho de la prestación de la Renta de Garantía de Ingresos de (...), conforme a lo prescrito en el artículo 43.1 b) del Decreto 147/2010”.*

### Gogoetak

**Lenenengoa.** Arartekoak, [Diagnostiko-Txostenean](#)<sup>1</sup>, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioen kudeaketa hobetzeko proposamen batzuk egiteko aukera izan zuen (2017. urtea). Txosten horretan, halaber, Arartekoak adierazi zuen erakunde horrek honako egitate hau antzeman zuela zenbait kexa izapidetu bitartean: interesdunaren jarduera hasten zenetik hamazortzi hilabete igaro ondorik, erakunde horrek, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren 16. artikulua itzalpean, fikziozko gutxiengo errendimendu bat egozten ziela profesional autonomo guztiei, aldez aurreko zerga-aitorpena izan edo ez izan; fikziozko egozpen horren ondoren, eta haren ondorioz, Lanbidek eten egiten zuen interesdunei kobratzea legokiekeen lanaren prestazio osagarria, eta, horrezaz gainera, ustez bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko ere eskatzen zuen.

Inguruabar horren ondorioz, Arartekoak **ofiziozko espediente bat** ireki zuen (**2477/2018/QC zenbakiarekin izapidetua**); espediente horretan, Lanbideri adierazi zitzaion ezen, Arartekoaren iritziz, prestazioen titular den norberaren konturako langileari jardueraren fikziozko errendimendua egozte aldera, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 16. artikulua hiru garren atala aplikatzea kasu jakin batzuetan baino ez dela bidezkoa; izan ere, hori aplikatzea bidezkoa izango litzateke, baldin eta Lanbidek prestazioen titularraren aurretiazko zerga-aitorpenik eskura ez balu.

Era berean, Arartekoak adierazi zuen ezen, erakunde honen iritziz, baita aurretiko zerga-aitorpenik ez dagoen kasuetan ere, eta norberaren konturako langileak egiten duen jardueraren benetako errendimendua zehazte aldera, Lanbidek beste froga-elementu batzuk ere erabil ditzakeela, hala nola BEZaren hiruhileko aitorenak eta

<sup>1</sup> Arartekoa. [Diagnostiko-Txostena](#) Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioen kudeaketa hobetzeko proposamen batzuk egiten dituen (2017. urtea) [linean]. Hemen eskuratu daiteke: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_4199\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_4199_3.pdf)

PFEZaren kontura egindakoak. Halaber, galdu-irabazien kontua behin-behinean exekutatzeari ere biala daiteke, arestian adierazi den kontabilitate arloko fikzio juridiko batera jo beharrik gabe. Hain zuzen ere, kontabilitate arloko fikzio juridiko hori kasurik gehienetan ez dator bat errealitatearekin, eta prestazioen eskatzailea zeharo egoera ahulean jartzen du.

Bereziki, erakunde honen iritziz, lanbide arteko batez besteko soldataren % 75eko edo % 150ko hileko fikziozko errendimendua krisian dauden pertsonen egoztea ez du arrazoizko azalpenik, eta ez dator bat Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen helburuarekin; hain justu ere, hori askoz nabarmenagoa da, beharbada, kontuan hartuta ezen, aurreko dokumentazioa aztertu ondorik, inolako zalantzarik gabe ondoriozta daitekeela benetako diru-sarrera falta dagoela jardura ekonomiko jakin bati dagokionez.

**Bigarrena.** Arestian aipatu den ofiziotako espedientea izapidetzean egindako informazio-eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak beren-beregi igorri zuen txostena sartu zen erakunde honetan 2019ko maiatzaren 13an.

Bertan adierazten zen, bidalitako eskaeran adierazten zen bezala:

*“(...) DSBEn titularraren edo onuradunaren norberaren konturako lanaren etekinak egotzi behar direnean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren 147/2010 Dekretuaren 16. artikulua aplikatzen da. Erregela orokorra 1. atalean ezartzen da. Atal horrek hau zehazten du: aurreko urteko zerga-aitorpenaren zerga-oinarria hartuko da aintzat noroeraren konturako etekinak zehazteko, eta hileko etekin garbiak bigarren paragrafoan ezarrita bezala kalkulatu dira. Beraz, aurreko urteko PFEZaren aitortzea badago, datu horiek erabiliko dira lan-eteekin zenbatzeko.*

*Aurreko urteko PFEZaren aitortzeak ez badago, DSBEn prestazioaren titularraren espedientean dagoen beste edozein zerga-aitortze hartuko da aintzat, hala nola hiruhileko PFEZa edo BEZa. Datu horiek laneko etekin gisa zenbatuko dira ondoko beste zerga-adierazpen bat aurkezten ez den neurrian. Ondoko zerga-adierazpen bat aurkeztean, datuak eguneratuko dira, eta zenbatutako etekinak berrikusiko dira. Hala, atzerapenak edo berriz sar daitezkeen zenbatekoak sor daitezke.*

*Aurreko urteko PFEZaren aitortzeak ez eta PFEZaren eta/edo BEZaren hiruhilekoko aitortzeak ez dagoenean soilik onartuko da DSBEn titularraren zinpeko adierazpena, lan-eteekin kalkulatzeko, Dekretuaren 16. artikuluen 3. atala aplikatuz (...).”*

Hain zuzen ere, 147/2010 Dekretuaren 16.3 artikulua honako hau ezartzen du:

*“Aldez aurretik egindako zerga-aitortzeak ez izanez gero, zinpeko aitortze bat egingo da, azken hiru hilabeteetan batez beste lortutako diru-sarrerak zenbatekoak izan diren jakiteko.*

*Hileko irabazi garbiak batez beste lanbidearteko gutxieneko soldataren % 150 baino gutxiagokoak direla dioen zinpeko aitortpena egiten baldin bada, edo inolako diru-sarrerarik ez dagoela edo negatiboak direla esaten baldin bada, **aitortpena osorik onartuko da, honako kasu hauetan:***

a) *Norberaren konturako jarduera eskaeraren aurreko sei hilabeteetan hasi baldin bada.*

b) **Eskaeraren aurreko sei hilabeteetan jardueran krisi-egoera bat dagoela ikusi denean.**

*Gainontzeko kasuetan, hileroko gutxieneko dirusarrera batzuk izan direla uste izango da, eta kopuru hori lanbidearteko gutxieneko soldataren % 75 bestekoa izango da, baldin eta adierazi diren a) eta b) egoerak aldeztu gertatu baldin badira, 6 hilabetetik 18 hilabetera arteko tartean; gutxienez 18 hilabete baino lehenago gertatu badira, sarrerak lanbidearteko gutxieneko diru-sarreraren % 150 izan direla ulertuko da.*

Erakunde honen aburuz, atal honen helburua titularraren diru-sarreraren zinpeko aitortpena ontzat ematea da, jarduera hasi eta sei hilabete baino igaro ez direnean (negozioa sendotzeko fasea) edo jardueraren krisi-egoera iraunkor bat ikusten denean, koherentetzat jotzen baita egoera horretan diru-sarrerak behera egitea.

Horrenbestez, DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN prestazioaren zenbatekoa finkatzerakoan, Autonomoen lan-errendimenduak, lehenik eta behin, aurkezten diren zerga-aitorpenen arabera kalkulatu dira, ahal delarik urteko PFEZaren aitortpenaren arabera; hiruhileko aitortpenak baino ez daudenean, aitortpen horiek hartzen dira kontuan, harik eta urteko aitortpena aurkeztu arte.

Bigarrenik, aldeztu gertatu ez badago, eta baldin 147/2010 Dekretuaren 16.3 artikuluan a) eta b) letretan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada, azken hiru hilabeteetako diru-sarrera garbien (diru-sarrerak ken gastuak) zinpeko aitortpena onartuko da.

Azkenik, aldeztu gertatu ez badago eta, horrezaz gainera, 147/2010 Dekretuaren 16.3 artikuluan a) eta b) letretan jasotako inguruabarretako bat gertatzen ez bada, orduan bakarrik egotzi ahal izango zaio jardueraren fikziozko errendimendua LGSren % 75ekoa edo % 150koa izatea, baldin eta jarduera hasten denetik 6 edo 18 hilabete igaro badira, hurrenez hurren, eta eskaera egin aurreko sei hilabeteetan krisi-egoera egiaztatu ez bada (edo berrikuspena egiten den unean).

Horri dagokionez, funtsezkoa da adieraztea ezen 2017ko maiatzean onartu eta Lanbideren webgunean argitaratu zen *"Diru-sarrerak bermatzeko errentaren arloko Lanbideren irizpideen dokumentua"-ren* 5.1 irizpidean honako hau esaten dela:

*“DSBEri begira, besteren norberaren konturako langile baten jarduera **krisi-egoeran** dagoela iritziko da haren hileko errendimendu garbiak (PFEZren azken aitorpenarena edo zinpeko adierazpena) pertsona bakarreko BU bati dagokion DSBEren gehieneko zenbatekoaren % 75etik beherakoak direnean”.*

Erakunde honi bidali zion txostenean, Lanbidek honako hau ere adierazten zuen: *“(…) irizpideak araua aRenta de Garantía de Ingresostu nahi izateak ez du eragozten irizpidea noizbait oker aplikatu izana, eta horrenbestez, araua bera ere oker aplikatu izana. Araudia oker aplikatu dela hauteman denean, ofizioz edo errekurtsio bidez zuzendu da”.*

**Hirugarrena.** Espediente honetan, prestazioen titularrak egindako norberaren konturako jardueraren aurretiazko zerga-aitorpenik ez dagoenez, erasota dago hark zinpeko aitorpen bat aurkeztu duela, 2019ko maiatzaren 2koa, zeinaren arabera 2018ko maiatzetik 2019ko martxora bitarteko batez besteko diru-sarrerara garbiak hilean.70 eurokoak izan baitziren

Horrek ez du zalantzarik sortzen, baldin eta kexaren sustatzaileak jarritako berraztertze errekurtsioaren ebazpenaren zuzenbideko HIRUGARREN oinarriari berari erreparatzen badiogu; horrezaz gainera, Lanbidek ez du zalantzan jarri ez hura bera ez haren edukia.

Argi dago etekin garbi hori *pertsona bakarreko bizikidetza-unitate bati dagokion Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren gehieneko zenbatekoaren % 75* baino askoz txikiagoa dela<sup>2</sup>. Horren ondorioz, Lanbideren irizpideen dokumentuko 5.1 irizpidearen arabera, jardueraren krisi-egoerak berrikuspena egin aurreko 10 hilabeteetan iraun zuen.

Horren ondorioz, interesdunaren zinpeko aitorpena osorik onartu behar da, aurretik aipatu den 147/2010 Dekretuaren 16.3 artikulua b) idatz-zatia aplikatuz; horrenbestez, egitate hori dela-eta, *ez da gertatzen Lanbidek erabakitako etetea eragin zuen arrazoiak: 147/2010 Dekretuaren 9.3.a) artikuluan ezarritako baldintza ez betetzea (titularrak eta/edo bizikidetza-unitateko kideek bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren eta bizikidetza-unitatearen motaren arabera legokiokeen hileko zenbatekoa baino errendimendu handiagoak izatea).*

Laburbilduz, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 16.3 b) artikulua arabera, norberaren konturako jardueraren ekonomiko bat hasten denetik hemezortzi hilabete epea igarotze hutsak ezin du berekin ekarri Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 150ko fikziozko errendimendua automatikoki egozte, *egiastaturik geratu baita eskaera egin aurreko sei hilabeteetan jardueraren krisi-egoera gertatu dela.*

<sup>2</sup> 667 euro hilean 2019. urtean.



Kasu horietan, legeak hala aginduta, Lanbidek prestazioen titularren hileko diru-sarreraren zinpeko aitortzea onartu behar du, eta, gainera, ezin da, bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu, hala badagokio.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarriarik dagoenarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten diogu sail horri:

### **GOMENDIOA**

Arartekoak honako hau gomendatzen dio Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari: arestion egin diren gogoetak kontuan hartuta, langile autonomo bati diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eteteko ebazpena berrius dezala; izan ere, langile autonomo horri bere jardueraren fikziozko errendimendua egotzi zaio, krisi-egoeran dela egiaztatu arren, berriuspen horrek dakartzan ondore ekonomikoekin.

